

AMAIUR, 475. URTEURRENA (1522-1997)

Amaiur Gaztelu Baltza

Amaiur gaztelu baltz ori
–berreun gudari oro sumin-
zaintzen zaituen zaldun onek
Naparra-aldez egin dabe zin.

Iskilu gorriz zenbat gazte
bildurbako menditar lerden.
Eta orreek, Jatsu jaun onek,
Xabierreko zaldun guren.

Aurtengo garagarriaren 19 eta 20an Naparroako Erreinuaren aide borrokan egin eben azken aldeztailen omenez, eregitako gomutagarriaren ondoan, galdutako borrokaldiaren 475. urteurrena ospatuko dabe.

Ikurrin bat –kate ta lili-
dorre goitian zabal dago.
Bera salduko dauan semerik
mendi onetan ez da jai.

Amaiurko atezain orren
zidar turutak oiugatik.
Baztan ibarra zenbat etsai,
arrotz bage ez dago mendirik!

Gaztelako Errege Katolikoak Naparroako erreinuari eraso egin eutsen 1512.eko garagarrilean bere gudarostea bialduta eta Goi-Naparroa bereganatu eban.

Naparroako errege-erreginek Naparroa atzera eskuratuteko saioek porrot egin eben, 1512. urtean 6.000 gudari napar ilda loturik.

Esiturik Amaiur dauka
Mirandako konde espainiarrak.
Onek, bai, burnizko janzkiak,
ta urrezko ezpata sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Leringo eta orren semea.
Txakur txarrek jango al abe,
erribako zaldun dongea.
Ilabete bat beluago, Amaiurko gazteluan berreun napar batu ziran, Jatsuko jaunak tartean zirala, Medranoko Jaime Velaz jaunaren agindupean. Bizkor eta sendo eutsi eutseen gaztelanar eta beaumontarren gudarostearen erasoei, janari eta laguntza barik lotu ziran artean.

Goiko aldetik asten dira
asten dira suaga otsez.
Orma kontretan zenbat zurgu
eta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil
ikurrin bat –kate ta lili-
nork zapaldu ete daikez
ben-eun gudari orok zoli?
Azkenean, Iruñeko espetxera eroan eta bertan il ebezan Jaime Velaz alkaidea eta bere semea Luis.

Ekintza ori gomutetako 1922ko bagilaren 30ean eregi zan gomutagarria, gaztelua egon zan leku berean, Naparroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foru aldunak bertanzirala.

Amaiurko gaztelu baltza
–jausi jatzuz dorre goitiak–.
Baina arrotza, ez adi geldu,
napar seme dira guztiak.

Arresti gorri, zubi ausi,
–zein gitxi diran zaldun orreek~.
Erio, samurño zakiez
aberrimin baitabiltz eurek.

Napar batzuk, gomutagarria gure askatasunaren esangarri zalakoan edo, dinamitzat ondatu eben 1931 eko garagarriko gau baten. Amaiurtarrek, bada, 475. urteurrena ospatu gura izan dabe eta orretarako urrengo egitarau au eratu dabe:

Garagarriaren 19an: 21.00etan, itzaldiak.
Garagarriaren 20an: 10.30etan, erriko enparantzan alkartzea.
10.45etan, kalez kalekoa gazteluraino.
11.00etan, gazteluan mezea eta ekitaldiak.
12.30etan, mutildantzak erriko enparantzan.
14.00etan, neba-arreben arteko bazkaria.

Mirandako konde gaizto orrek
jo eizuz zidar turutak.
Ikurrin bat –kate ta lili-
ez dau laztanduko aizeak.

Ben-eun gudari oro sumin
gaztelupean dagoz ilik.
Orditik ona –zenbat laino–,
Naparroan ez da aberririk.

(LAUAXETAREN olerkia)
Iniaki MARTIARTU
1997ko gragarrilean

Berbalapikoa

oro = guztiz, erabat.
aldez egin = defendatu, -run aide egin.
iskilu = arma.
lerden = itxura oneko, dotore, txairo. (gizonak).
guren = onen.
aldeztaille = defendatzaile.
eregi = eraiki, egin.
gomutagarri = monumentu, oroitarri.
goiti = andi, garai.
turuta = tronpeta.
gudaroste = armada.
saio = aalegin.
esitu = inguratu, sitiatu.
ezpata sagar = ezpatearen kirtena edo eskutokia.
donge = txar, gaizto.
suaga = kainoi.
zurgu = egurrezko esku-eskilara.
zoli = kemen, adore.
geldu = arritu, zurtz eginda lotu, txunditu.
arresi = arrizko orma.
aberrimin = aberriaren alde.
esangarri = nabarmen, esanguratsu, adierazgarri.